



HISTORIA HARRIGARRIA

Bergarak gordeta duen historia harrigarria da. Bergarako Errege Seminarioak, krisi-garaiak gainditzeko, berrikuntzaren aldeko apustua egin zuen heziketaren eta ikerketa zientifikoaren bidez. Ikasketa praktikoez eta bilduma zientifikoek goi-goia jo zuten Wolframa aurkitzean.



ARDATZ NAGUSIA, BERRIKUNTZA

Bergaran, etengabeko taupada bat antzematen da; berrikuntzaren taupada. Aspalditik dator; ilustrazioetik behintzat bai; izan ere, garai hartan, toki batetik bestera ziztu bizian joan nahi genuen, mezuak berehala bidali nahi genituen, espezie ezberdinak aurkitu, mundua argiztatu. Eta oraindik ere, berrikuntza da gizakien bizimodu baldintzak hobetu ditzakeen tresna giltzarria.



ESPERIENTZIA BEREZIA

Bisitaldia lorategian hasten da; kontinente ezberdinetako espezie botanikoak ditu. Errekalde jauregian, Peñafloresko kondea bizi izan zen tokian, XVIII. mendera arte bidaiatuko dugu. Elhuyar anaiak ezagutu eta wolframa aurkitzen lagunduko diegu; taula periodikoaren elementuak atzamarretan hartuko ditugu; animalia bitxiak ezagutuko ditugu, Ozeania, Asia zein Amerikakoak.



BILDUMA HUNKIGARRIA

Museoko bildumak bihotza ukituko dizu, aurkikuntzaren ilusioa gertutik bizi izanaren gogorapena gordetzen baitu. Bilduma aparta da, paregabea, bakarra, bai erakunde sortzaileak izandako garrantziagatik, bai bildumaren antzinatasunagatik, bai gordetzen dituen aparteko ale bereziengatik. Fondoak dituen 3.000 aleetatik, pieza batzuk bakarrik daude erakusgai; baina gaur egun guzti-guztiek dute arte-lanen pareko balioa.




LABORATORIUM



Laboratorium museoa. Juan Irazabal pasealekua, 1. 20570 Bergara - Gipuzkoa

Irailaren 17tik ekainaren 30era



Uztailaren 1etik irailaren 16ra

Itxita: Urtarrilak 1 eta 6, Pentekoste jaiak, Irailak 16 eta abenduak 24, 25 eta 31
laboratorium@bergara.eus / 943 769 003

Hegazkinez:

Gertuen dagoen aireportua Bilbokoa da, Loiu.

Miarritzekoa 75 minutura dago.

Autoz:

Kostaldetik, Donostiatik, Bilbotik, Gasteiztik (40 min): A8 - AP1 autopistak.

Iruñetik: A10, A1 eta GI/632 autobideak.


Gipuzkoa barnealdetik:
Tolosa - Beasain - Bergara.

Autobusez:

Pesa - Lurraldebus
www.pesa.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



GURE NAHIA

Ez dugu nahi *Laboratorium* soil-soilik erakusketak izatea. Bergaran murgildutako eragile gisa ikusi nahi dugu, bertako jardueren sozial, ekonomiko eta kulturalaren barnean, herritar helduentzako zientzia-programak sortzen, lantegi didaktikoak eratzten, udaleku zientifikoak garatzen, ikasleekin loturak ezartzen, eta baita Bergarako hirigune historikoa eta natura ezagutzeko bisitaldiak edo txangoak antolatzen ere.



LABORATORIUM
BERGARA

